

2024KO IRAILAREN 26KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko irailaren hogeita seian, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Maialen Amundarain Irizar, Maria Carolina Aguirre Mastrangelo eta Haritz Antoñanzas Urdangarin.

Egoitz Bergara Azpirotz zinegotziak bere ezin etorria adierazi du.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Alkateak azaldu du IX. puntua, Berdeguneak zaindu eta mantentzeko zerbitzuaren kontratuaren esleipenari buruzkoa, bertan behera utzi behar dela enpresa esleipendunak oraindik ez duelako eskatutako dokumentazioa aurkeztu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2024ko uztailaren 18an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

III.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 5 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIEN-TEAREN ONARPENA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Kontu-hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamenaren irakurri dira.

Alkateak kreditu aldaketa proposamenaren xehetasunaren azalpena egin du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio abstenitu egingo direla.

Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botorekin (EAJ-PNV), 5 abstentziorekin (EH Bildu) eta aurkako botorik gabe, honako akordio hauek hartu ditu:

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 5 zenbakidun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

| Kapituluak | Izena | Gehikuntzak |
|----------------------------|--|---------------------|
| II | Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak | 56.590,00 € |
| IV | Transferentzia arruntak | 1.500,00 € |
| VI | Inbertsio errealak | 381.500,00 € |
| GEHIKUNTZAK GUZTIRA | | 439.590,00 € |

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

| Kapituluak | Izena | Zenbatekoa |
|----------------|-------------------|---------------------|
| VIII | Finantza aktiboak | 439.590,00 € |
| GUZTIRA | | 439.590,00 € |

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

IV.- KREDITU TRANSFERENTZIA BIDEZKO 1 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA.-

Alkateak, Ebazpen bidez onartutako transferentzia bidezko 1. kreditu aldaketaren berri eman du.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

V.- KREDITU TRANSFERENTZIA BIDEZKO 2 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPE-DIENTEAREN BERRI EMATEA.-

Alkateak, Ebazpen bidez onartutako transferentzia bidezko 2. kreditu aldaketaren berri eman du.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

VI.- TAXIEN HIRI-TARIFAK 2025. URTERAKO.-

Gipuzkoako Taxilarien Elkarteak 2025 urterako hiri-tarifen proposamena bidali du Udal honetara. Datorren urterako % 2,6ko igoera proposatu du. Goierriko herri guztietarako hiri-tarifa berdinak planteatzen dira.

Hiri-tarifen proposamen hau, Udalaren Osoko Bilkurak onartzea erabakiko balu behintzat, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailera bidali behar da honek onar dezan.

Proposamenarekin batera auto-taxien ustiaketak dituen gastu eta sarreren azterketa ere bidali dute.

Gaur egun indarrean dauden tarifak jarraian azaltzen direnak dira:

| HIRI - TARIFA (2024) | | | | | |
|----------------------|---------------------|---------------------|---------------|---------------------|---------------------|
| 1 TARIFA * | | | 2 TARIFA ** | | |
| Abiatze saria | Egindako kilometroa | Zain egindako ordua | Abiatze saria | Egindako kilometroa | Zain egindako ordua |
| 4,2403 | 1,3275 | 25,3552 | 4,2403 | 2,1171 | 39,8501 |

2025erako Gipuzkoako Taxilarien Elkarteak proposatu dituen hiri-tarifak honako hauek dira:

| HIRI - TARIFA (2025) | | | | | |
|----------------------|---------------------|---------------------|---------------|---------------------|---------------------|
| 1 TARIFA * | | | 2 TARIFA ** | | |
| Abiatze saria | Egindako kilometroa | Zain egindako ordua | Abiatze saria | Egindako kilometroa | Zain egindako ordua |
| 4,3505 | 1,3620 | 26,0145 | 4,3505 | 2,1722 | 40,8862 |

* *Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da*

*** Tarifa hau egun orotan 22:00etatik 7:00etara eta igande eta dagokion autonomi eta toki arautegietan finkatutako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara eta halaber larunbatetan eta abenduaren 24 eta 31n aplikatuko da.*

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du baiezko botoa emango dutela, baina Gipuzkoako Taxilarien Elkarateak bidalitako euskarazko dokumentua oso trakets idatzita dagoela eta dagokionari hau jakinaratzeko eskatzen du.

Alkateak dio ondo iruditzen zaiola, jakinaraziko zaiela eta testua zuzenduta bidaltzeko eskatuko zaiela. Hala ere, eskatzen du botoa ez dezala honek baldintzatu.

Hau guztia kontuan izanda, Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

- 1.- 2025 urterako auto-taxi garraio zerbitzuetarako proposatu diren hiri-tarifak onartzea.
- 2.- Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari eskatutako dokumentazio aurkeztea, egin beharreko izapideak egin ditzan.

VII.- KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEKO OBRAREN 22, 23,24,25 ETA 26. OBRA EGI-AZTAGIRIAK.-

Echaniz zinegotzia (EAJ-PNV) abstenitu egin da eta aretotik irten da.

Joxemiel Barandiaran kiroldegiaren birmoldaketa lanen obra zuzendaritza daramaten Jovino Martinez Sierra arkitektoak eta Alberto Olabarrieta Etxeberria arkitekto teknikoak lan hauen obra egiaztagiriak egin dituzte.

Hogeita bigarren obra egiaztagiria EHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI MILA BOSTEHUN ETA HAMALAU EURO ETA LAUROGEITA HAMABI ZENTIMOKoa (159.514,92 €) da, gehi BEZ.

Hogeita hirugarren obra egiaztagiria HAMABI MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HAMAHIRU EURO ETA BERROGEITA HIRU ZENTIMOKoa (12.593,43 €) da, gehi BEZ.

Hogeita laugarren obra egiaztagiria BERREHUN ETA BERROGEITA HAMASEI MILA BERREHUN ETA HOGEITA ZAZPI EURO ETA HAMAIIKA ZENTIMOKoa (256.227,11 €) da, gehi BEZ.

Hogeita bosgarren obra egiaztagiria SEIEHUN ETA HOGEITA HAMABI MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI EURO ETA BERROGEITA HAMABI ZENTIMOKoa (632.496,52 €) da, gehi BEZ.

Hogeita seigarren obra egiaztagiria EHUN ETA HOGEITA ZAZPI MILA BEDERATZIEHUN ETA BOST EURO ETA HOGEITA HEMEZORTZI ZENTIMOKoa (127.905,38 €) da, gehi BEZ.

Lanak Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak oniritzia eman die ziurtagiri hauei.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio gai honen inguruan abstenitzen jarraituko dutela, beren ustez hau HAPOaren ondoren egin behar zelako.

Hau guztia kontuan izanda, Hirigintza, Etxebizitza eta Zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 6 boto (EAJ-PNV), aurkako botorik gabe eta 5 abstentziaz (EH Bildu), ziurtagiri hauek onartu ditu.

VIII.- KIROL ZERBITZUEN KONTRATUAREN ESLEIPENA.-

Echaniz zinegotzia (EAJ-PNV) aretora bueltatu da.

Udal Osoko Bilkurak, 2024ko uztailaren 18an hartutako akordio bidez, kirol zerbitzuak prozedura irekiz eta lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

Lizitazio deialdiaren iragarkia kontratatzailearen profilean jarri zen eta 2024ko abuztuaren 5eko OJ/S 151 zenbakidun Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu zen.

Eskaintzak aurkezteko epean ondorengo proposamen hauek aurkeztu dira:

- * NEO INSTALACIONES DEPORTIVAS, S.L.
- * ATHLON SINTAGMIA, S.L.

Aurkeztutako 2 proposamenak onartuak izan ziran.

Balio-judizio baten menpeko irizpideen balorazioa egiteko dokumentazioa jasotzen duen 2. artxibo elektronikoa 2024ko irailaren 9an, eguerdiko 12:30etan jendaurrean ireki zen.

2. artxibo elektronikoa jasotzen dituzten dokumentazioaren azterketa egin ondoren honako puntuak eman zitzaizkien proposamenei:

| ENPRESA | Kudeaketa proiektua | | | PUNTUAK |
|------------------------------------|---------------------|----------|----------|-----------|
| | 1. atala | 2. atala | 3. atala | |
| NEO INSTALACIONES DEPORTIVAS, S.L. | 13 | 3 | 5 | 21 |
| ATHLON SINTAGMIA, S.L. | 14 | 3 | 5 | 22 |

2024ko irailaren 16an 3. artxibo elektronikoak ireki ziren, eta aurkeztutako eskaintzak ondorengoak izan ziren:

| ENPRESA | Sorosten zerbitzua | Kirol jarduerak | Harrera zerbitzua | Estail gab. manten. | Salmenta zerbitzua | Koordinazioa | Langileei prest. | Berdintasun prest. | Kanpoko jarduerak |
|------------------------------------|--------------------|-----------------|-------------------|---------------------|--------------------|--------------|------------------|--------------------|-------------------|
| NEO INSTALACIONES DEPORTIVAS, S.L. | 32,27 €/o. | 34,43 €/o. | 31,13 €/o. | 33,10 €/o. | 26,85 €/o. | 38,12 €/o. | urtean 20 o. | urtean 20 o. | urtean 20 o. |
| ATHLON SINTAGMIA, S.L. | 29,94 €/o. | 31,23 €/o. | 29,85 €/o. | 28,63 €/o. | 23,23 €/o. | 35,25 €/o. | urtean 20 o. | urtean 20 o. | urtean 20 o. |

Lortutako puntu guztiak batu ondoren, emaitza ondorengoa da:

| ENPRESA | Balio-judizio baten mendekoa | Proposamen ekonomikoa | Prestakuntza | Berdintasun prest. | Kanpoko jarduerak | PUNTUAK |
|------------------------------------|------------------------------|-----------------------|--------------|--------------------|-------------------|--------------|
| ATHLON SINTAGMIA, S.L. | 22 | 42,92 | 5 | 5 | 10 | 84,92 |
| NEO INSTALACIONES DEPORTIVAS, S.L. | 21 | 13,22 | 5 | 5 | 10 | 54,22 |

Hau honela, eta udalarentzat proposamen abantailatsuena izanik, kontratazio mahaiak kirol zerbitzuak ATHLON SINTAGMIA, S.L. enpresari esleitzeko proposamena egiten du.

Lehen sailkatua izanik, Athlon Sintagma, S.L.ri esleipena egin ahal izateko beharrezko dokumentazioa ekar zezan, hala nola behin betiko fidantza jar zezan, eskatu zitzaion eta honek eskatutakoa bete du.

Hau guztia honela, eta proposamena Ogasun batzordean informatua izan ondoren, Osoko Bilkurara aurkeztu da bere onarpenerako.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio aurtengo udan kanpoko igerilekuan produktuak saltzeko ipini den etxolan zerbitzua emateko kontratatu diren pertsonak euskarari dagokionean jarrera txarra izan dutela helarazi diotela.

Alkateak dio jakinaren gainean gelditzen direla eta kontuan izango dutela.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren eta kontratazio mahaiaren proposamenaren aurrean, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

Lehena.- Kirol zerbitzuak ATHLON SINTAGMIA, S.L.ri esleitzea, ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA BAT MILA BEDERATZIREHUN ETA HEMEZORTZI euro eta HOGETA HAMASEI

zentimo (841.918,36 €) gehi dagokion BEZ prezioan, hau da, proposatzaileak bere eskaintza ekonomikoan jarritako prezioetatik ateratzen den prezioan.

Bigarrena.- Esleipen honen jakinarazpena kontratazio prozedura honetara aurkeztutako guztiei egitea, hala nola kontratatzailearen profilean argitaratzea.

IX.- BERDEGUNEAK ZAINDU ETA MANTENTZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUAREN ES-LEIPENA.-

Gai hau ez da jorratu, lehen sailkatuak ez duelako oraindik eskatu zaion dokumentazioa aurkeztu.

X. GALDERAK ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

XI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko zazpiak direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.